

HONDAMENDIA USAINDUTA, SALBAMENDU-TXALUPA BILA DABILTZA ABERATSENAK

Munduko 40 pertsona aberatsenetakoa den Elon Muskek aurkeztu berri du SpaceX, gizakiak Ilargira bezala Martera eraman ahal izango omen dituen espazio-ontzia. Bezperan, milioika jende kalera irtenak ziren mundu osoan agintariei eskatzeko klimaren hondamendia geldiaraz dezatela. Baina –Musken hegazkin futurista lekuko– elitearen ametsa hondamendia saihestea baino gehiago da beraiek ekaitzetik libratzea, salbamendu-ontzi ongi armatuetan.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Aberatsek saihestuko ote dute klimaren apokalipsia?" idatzi du Tom Whymanek *New Internationalist* aldizkarian. "Milioidun jendea hondamendirako prestatzen ari da. Arazo bakarra zera da, beste guztiok ez gaudela konbidatuta".

Hedabide nagusiek egunero zerbitzatzuten digute ingurumenaren suntsiketari buruzko irudi edo titular deigarrien bat. Hondamendia arintzeko hartu beharko lirakeen neurriak aipatzen dira, agintariak gairi benetan aurre egin diezaioten gizartean ugaritu dira mobilizazioak... baina aldaketa jada gertatzen hasia da.

Klimaren zoritzeak bere kalteak orain artean nagusiki munduaren hegoaldean erakutsi ditu eta horien aurreko lehen erreakzioetako bat da iparralde aberatseko gobernuak beren mugak militarizatu dituztela, orain arte tantaka baina laster uholdeka irits daitezkeen migratzaileetatik babesteko. Horra Christian Parenti kazetari ikerlariak deitzen duena *salbamendu-txalupa armatuaren politika*: dagoeneko txalupa barruan ez bazaude, orduan gure tiro bat hartzeko miran zaude.

Erreakzio horren ildoan, dio Whymanek, herrialde aberatsetako gobernuen aukera izan daiteke beren herritarrak gustura edukitzeko gainerako mundutarrak sakrifikatzeke prest egotea. "Baina denborarekin, olatuek harrapatuko gaituzte geu ere, salbamendu-txalupa armatu barruan goazenok. Aberatsen

interes egoistak gainerakoon interesetatik aparte dabilta. Iaz Kalifornia kiskali zuten sute izugarrien kontra borrokatu ziren suhiltzaileetako batzuk pribatuak ziren, aseguru konpainiek kontratatuak beren zerbitzuak ordaintzen dituztenen etxebizitzak defenditzeko".

Kaliforniako hondamendian inguruko guztiak sutan zeuden bitartean, suhiltzaile pribatuak aberatsen etxaldek defenditzen zituzten airetik garrak geldotzeko produktuz zabalduz eta lubakiak zulatuz. Ura eta uholdeekin antzer gertatu da Floridan bezala bestetan: urek gero eta gehiagotan harrapatzen dituzten auzoetatik aberatsenak ihes egin dute altuera gehiagoko beste batzuetara, hauetatik txiroenak kanporatuz. Gentrifikazioa klimarekin ere badago lotuta.

Baina benetako aberatsak, dirudunetan dirudunenak, irtenbide muturrakoen bila ere badabilta. Horren lekukotasun pertsonala emanaz mintzatu da Douglas Rushkoff: "Aberatsak konspiratzen ari dira gu atzean uzteko".

Douglas Mark Rushkoff (AEB, 1961) teknologian berezitutako teoriko, idazle, dokumentalista eta irakaslea da, eza-guna ziberpunk kulturaz, *open source* motako soluzioez eta beste idatzi dituenengatik. Hemen laburbilduko diogun artikuluan kontatu du iaz gertatu zitzaion pasadizo argigarria.

Irakasle eta hizlari ezaguna, hitzaldi bat ematera gonbidatu zuten luxuzko *resort* batera. Uste zuen inbertsio bankuetako buruzagi talde bati *teknologia-*

ren etorkizunaz hitzaldia emateko deitu zutela eta horretara joan zen, bere bizitzako hitzaldirik garestiena ematera, unibertsitatean urtebetean irabazten duenaren erdia kobratuta.

Entzulego txit murrizt batekin egin zuen topo: bost tipo hiper-aberats, denak gizonak, diru-funts handien munduan goienean daudenetarik. Hizketan hasita berehala ohartu zen ez zitzaiela batere interesatzen berak teknologiaren etorkizunaz prestatuta zekarrena. Bestelako galderekin zetozen.

KLIMA ALDAKETA, KLASE BORROKA

"Gauza nahiko samurrekin hasi ziren, bitcoin kontuak, ea ordenadore kuantikoa dagoeneko badagoen... Baina pixkanaka jo zuten benetan interesatzen zitzazkien gaitara. Klimaren krisiak zein eskualde kaltetuko du gutxi, Zeelanda Berria ala Alaska? Egia al da Google ari dela prestatzen gune bat Ray Kurzweilen burmuinarentzako, eta horrela bada, haren kontzientziak biziraungo du trantsizioan zehar ala hil egingo da eta erabat berrituta berpiztuko? Burtsako konpainia baten jabeak, azkenik, esan zuen ia bukatuta zeukala bere jauregian lurpeko bunkerra eta galdetu: 'Nola eutsiko diot nire segurtasun arduradunen gaineko aginteari *gertakizunaren* ondoren?'".

Gertakizuna, *the event*, eufemismo horrekin deitzen zioten eliteko bost marrazo haiek ingurumenaren kolapsoak eraginda gerta daitekeen zera larri eta handi horri, izan gaixotasunen ugaritzea



SPACE-X

ELON MUSK MILIOIDUNAK
ILARGIRA ETA MARTERA
BIDAIATZEKO AURKEZTU
BERRI DUEN ESPAZIO-ONTZIA.

edo estatuen hondoratzea edo leherketa nuklearra edo dena delakoa.

Bunkerduaren galderak bazeukan mamia. Aberatsak ohartzen dira guarda armatuak beharko liratekeela beren ondasunak jende masa haserretuetatik babesteko. Baina nola ordaindu guardia horiei diruak bere balioa galtzen baldin badu? Kaosean guardiek beren artean lider berri bat aukeratzea nola eragotzi? Milioidun haien kalkuluetan sartzen, zaindarien fideltasuna bermatzeke, janari guztiak giltzapean gordetzeke, gakoak beraiek edukita. Edo guardiei disziplinazko lepoko bereziak ezartzea, bizirik jarraitzearen truke. Edo zaindari lanetan robotak jartzea.

“Honek harritu ninduen –dio Rushkoffek– zeren eta bilkuraren gaia teknologiaren etorkizuna baitzen. Baina funtsean, haien kezka da beste handikien uberan

joatea, Marte kolonizatu nahi duen Elon Musk (Tesla), zahartzea saihestu nahi duen Peter Thiel (Paypal) edo beren burmuinak super-ordenagailuetan zamatu nahi dituzten Sam Altman (Y Combinator) edo Ray Kurzweilen (Google) ildoan. Nahiko luketen etorkizun digitalak zerikusi gutxi dauka gizadi osoaren bizi-baldintzak hobetzearekin eta asko beraiek ihes egitearekin klimaren aldaketak dakartzan arriskuetatik: itsas mailaren igoetzea, migrazio masiboak, planeta mailako pandemiak, gutxiengoekiko gorrotoa eta baliabide naturalen agortzea. Horientzako teknologiaren etorkizunaren funtza benetan hau da: ihes egin”.

Rushkoffek aberaskiloei iradoki omen zien bihar jendetzaren eta are gardien ere beldur izatea baino hobe litzatekeela gaur jendeok zuzen tratatzea, segurtasun ekipoa familiakotzat hartzea eta

jokabide inklusibo hori zabaltzea beren negozioen katebegi guztietaraino, jasangarritasuna sustatuz eta aberastasunak banatuz arrisku gutxiago egongo zela horrelako *event* ikaragarri bat gertatzeke. Azken finean, hobe teknologiaren aurrerapenak denen mesederako gartzea amets erromantikoetarako baino. Milioidunek estimatu zioten baikortasuna, baina berentzat hartu ez; ez zeuden hondamendia saihesteko moduez interesatuta: urrunegi joan garela uste dute.

Rushkoffek dio amaieran: “Gizaki izatea talde-kirola da, ez dago banaka bizi-raun edo ihes egiterik. Gizakiek etorkizunik izango baldin badute, elkarrekin edukiko dute”. Tom Whymen gordinago mintzatu da *New Internationalist*-en: “Aberatsek aurreikusten dituzten ekin-tza horiek oroitarazten digute klimaren aldaketa klase borroka dela”. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t